

## **DIRU-SARRERAK**

### **MAILEGUA**

Gure enpresak diru-sarrerak izaten has dadin, lehenik eta behin proiektua aurrera erameteko maileguak eskatu beharko dizkio bankuari inbertsioak egin ahal izateko. Kasu honetan, Kutxa Bankuari eskatuko dizkiogu 20 000€ eta ondoren, irabaziak izaten hasten garenean, hilabetero mailegua pixkanaka bueltatzen hasiko gara.

### **PUBLIZITATEA**

Diru sarrerak izaten hasteko, herritarrek gerturatu beharko ditugu, eta horretarako, publizitatea egingo dugu bai sare sozialetan eta internet bidez, eta baita meeting-etan ere. Azken kasu honetan, proiektua hainbat enpresa edo herriei aurkezterako orduan egingo da, informazio foiletuak aurkeztuz eta publizitatea eskainiz. Modu honetan, herrietako buruei (alkateei, etab.) interes bat sortuko zaie, eta gure proiektua haien herrietan ezarri nahiko dute, era honetan guri irabaziak handituz.

### **PREZIOA**

Bezeroek hileroko 39,90€ ordaindu beharko dituzte gure zerbitzuagatik. Prezio honek BEZ-a eta zerbitzu guztiak barneratzen ditu, ondoren tratamendu edo medikamendu gehigarri bat beharko balu gehituko litzaiokeena.

Prezioak adin eta egoeren arabera honela sailkatuko genituzke:

- Pertsona bakarra: 39,90€
- Bikotea: 34,90€ bakoitzak
- Seme-alaba batekin: 32,90€ bakoitzak
- Bi seme-alaba edo gehiago: 29,90€ bakoitzak.
- 8 urtetik beherakoak: 23,90€
- 9-16 urte bitartekoak: 25,90€
- Jubilatuak: 25,90€
- Langabetuak: 26,90€
- 18-26 urte bitartekoak: 29,90€
- Ikasleak (unibertsitatean): 25,90€

Gure diru-sarrerak, bezeroek ordaintzen digutenaz gain, beste enpresa batek bere enpresako produktuak gure bitartez saldu nahiko balitu, edo bere enpresaren publizitatea egin nahiko balu gure enpresaren bitartez, ordaindu egin beharko digu, eta prezioa berarekin adostuko da.